

DATORRENA


Dogma ekonomikoen
malgutasuna ISIDRO ESNAOLA > 3

ANTONIO DE MIRANDA: «Dilma
itzultzen bada, aldaketak egin
beharko ditu» > 18

2016ko abuztuaren 27a | X. urtea • 482. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



YAO HERRIA, «XORIERI MINTZO»

MOZAMBIKEKO YAO HERRIKO EZTI-BILTZAILEEN ETA «INDICATOR» FAMILIAKO
TXORI EZTI-GIDARIEN ARTEKO KOMUNIKAZIOAREN BERRI JAKINARAZI DU IKERKETA
BATEK. «HOMO ERECTUS»-AREN HIZKUNTZAZ ARI OTE DIRA? > 4 GAUR8



«Xorieri mintzo»: Yao herriko ezti-
biltzaileen eta txori ezti-gidarien
arteko solasa 04

Padura Baratza, ortu ekologikoa
Gorbeia ren hegalean 10



Zazpi hilabete itxita eta...
lehengora? 14

Nekazaritza ekologikoak
konbentzionalaren pareko
errendimenduak lortzen ditu 15

Elkarrizketa: Antonio de Miranda,
Brasilgo Lurrik Gabekoen
Mugimenduko buruzagia 18

53 kontakizun ipuin zital baten
aurrean 20

Juantxo Egañaren behatxulotik 23



SINADURAK:

03 **Isidro Esnaola:** Dogma

ekonomikoen malgutasuna

08 **Saioa Aginako:** Ahoa, hitz
egiteko

09 **Pello Otxandiano:** Irri eta herri

13 **Exprai**

16 **Beñat Gaztelumendi:**

Abuztuko denborak

17 **Laura Mintegi:** Hegemonia
dixosozkoa

21 **Antton Izagirre:** «Burkinia»

21 **Miren Azkarate:** Itzalen artetik

22 **Rosa Arruabarrena:**

Smartphoneak eta aplikazioak:
iraultza edota saturazioa?



{ datorrena } **Isidro Esnaola**

Dogma ekonomikoen malgutasuna

Azkenean, ArcelorMittal enpresak Sestaon duen altzairutegia (ACB) berriz martxan jartzea erabaki du. Proposatu zuen ekoizpen plana nahiko bitxia da, baina, tira, martxan izango da. Hori bai, planak langileen oniritzia jaso zuenez geroztik bi hilabete pasatu dira. Enpresak langileei planteatu zien dikotomia ohikoa izan zen: edo enpresaren egitasmoa onartu, edo ezer ez. Erreferendum baten bidez, langileek onartu egin zuten proposatutakoa. Hala ere, ArcelorMittal-ek agindutakoa gauzatzen hasteko bere denbora hartu du.

Tarte horretan esparru instituzionalean bestelako negozioazioak egon direla ematen du. Ika-mika batzuk zabaldu dira Lakuako Gobernuaren eta enpresaren artean. Aste honetan Sustapen Ekonomikoaren sailburuak, Arantza Tapiak, oso argi utzi nahi izan du enpresak ez duela laguntza berezirik jasoko, baina, era berean, enpresarekin elkarlanean aritu direla esan du. Orduan, zertan aritu dira bi hilabete haue-tan elkarlanean?

Gobernuek debekatuta dute enpresei laguntza zuzenak ematea. Horretarako, ohiko dogma neoliberalak erabiltzen da: enpresek lehiakorrak izan behar dute eta lehiakortasun gaitasun hori merkaturak erakutsi behar dute, kanpoko laguntzarik gabe. Eta horri eusten diote neoliberal dogmatiko guztiek. Kontua da enpresa denak ez direla berdinak: lurralde batean duten eragina eta bertako ekonomian duten arraste indarra zeharo desberdina da. Estatu baten ekonomiaren ikuspuntutik, trazio-enpresak mantentzeak berebiziko garrantzia du, beren izaera sozialagatik ekonomia ehuntzen baitute. Baina neoliberalek ez dute halako ezberdintasunik kontuan izan nahi: dogma beste ebidentzien gainetik dago.

Dena den, araua egiten duenak tranpa ere egiten du. Horrela, ezin da enpresei diru-laguntzarik eman, baina ikerkuntza eta garapenerako bada, orduan bai. Horrela, Arcelorrek bere ikerkuntza egoitza Zamudiotik Sestaora eraman du eta ACBko planta «ikerkuntza gune» bilakatu da. Orain bai, jaso ditzake diru laguntzak. Beharbada, bi hilabete hauetan enpresako ordezkariak eta Gobernuako funtzionarioak horrelako zirrikituak lantzen ibili dira. Dogma baten preso daude, baina nahi denean edo behar

denean, bideak topatzen dituzte dogmaren gainetik pasatzeko. Hori bai, bekatua beti ukatu behar da.

Beste hainbeste gertatzen da nazioarteko merkataritzarekin. Kasu honetan, Europar Batasuna da eragile nagusia. Estatuaren arteko merkataritza askea sustatu behar da, guztiontzat ona omen delako. Horretarako, merkantziak lehiatzeko ezarri diren trabak ezabatu behar dira. Lehiak funtzionatu ahal izateko salgaiek ez dute sarrera oztoporik izan behar. Ideia hori ere oso ondo gelditzen da ekonomiako eskuliburuetan, baina praktika bestelakoa da. Europar Batasunak ukatu egiten dio «merkatu ekonomia-aren» estatusa Txinari. Horretaz baliatzen da *dumping*aren aitzakiapean ikerketa espedienteak zabaltzeko eta ondoren Txinatik datozen merkantzien gainean muga-zergak ezartzeko. Horrela, garestitu egiten dira eta lehiakortasuna galtzen dute. Hori izan da, hain zuzen ere, Europar Batasunak hartu zuen erabakia abuztuaren

Europako gobernuak dogma neoliberalen preso bizi dira. Dogma horiek ez diete politika industrialik egiten uzten, esku-hartze oro merkatu librearen aurkakoa baita

hasieran: Txinatik eta Errusiatik inportatzen den altzairuak muga-zerga ordaindu beharko du hurrengo bost urteetan. Noraino justifikatuak dauden muga-zerga horiek zaila da esatea. Kasu honetan ere dogma bere horretan mantentzen da: Europar instituzioek besteei egozten diete errua eta neurriak hartzen dira egoera orekatzeko.

Europako gobernuak dogma neoliberalen preso bizi dira. Dogma horiek ez diete politika industrialik egiten uzten, esku-hartze oro merkatu librearen aurkakoa baita. Horren ondorioz, industriak egoera tamalgarria bizi du. Dogmen hutsegitea nabarmena izanik, indarrak eta bi galtzen dituzte eraikitako dogmen gainetik pasatu ahal izateko. Beti asmatzen dute zerbait. Aurrerantzean horrela jarraitu nahiko dute, baina bide horretan etsaiak egin besterik ez dute lortzen eta etorkizunean jarrera lotsagarri horrek ondorioak izango ditu. •

«XORIERI MINTZO»

Yao herriaren eta txori ezti-gidarien arteko (proto)hizkuntza «Homo erectus»-arena?

 **ZIENTZIA** / Mikel Zubimendi Berastegi

Ez da ezagutzen Mixel Labéguerie kantautore eta politikari uztariztarrak “Xorieri mintzo” kanta ederra sortu zuenean ba ote zuen Mozambikeko Yao herriaren berri. Ba ote zekien txorien eta pertsonen arteko mintzaira milenarista bat bazela, basa eta libreak ziren txoriek argi asko ulertzen zituztela mintzatzen zitzaizkien pertsonen esanak. Seguru aski, ez. Baigorriko artzain eta abeslari Erramun Martikorenak abesten du “Xorieri mintzo” kantaren bertsiorik ezagunena, Petti berrak ere badu polit askoa den beste bertsio bat ere, baina, ez dago esaterik beraiek ere ondoko istorioaren berri ba ote duten. Batek jakin!

Kontu ezaguna da, ordea, belatzak eta arranoak ehizarako, ubarroak arrantzarako, zerriak boilurrak topatzeko... sarri erabili dituztela gizakiek, hau da, etxekotu edo entrenatutako animaliak, borondate librekoak eta basa ez direnak.. Maiz entzun da, bestalde, animaliak gai direla beste animaliekin edo landareekin harreman sinbiotikoak sortzeko, izan jankideak, mutualistak edo parasitarioak.

Mozambike iparraldeko Niasa natura-erreserban kokatutako Mbamba herrixkatik datorren berriak, baina, errotik ezberdina den istorio bat kontatzen digu. Cambridgeko Unibertsitatean portaeren ekologo gisa aritzen den Claire Spottiswoodek “Science” aldizkarian argitaratu berri duen ikerketa batek orain arte sekula ezagutu gabeko animalia basen eta gizakien arteko harreman zuzen eta arrakastatsu baten berri eman baitu.

Egia da, halaber, badela historian zehar jarraian azalduko den harreman sinbiotikoaren pareko harreman dokumentaturik. Plinio Zaharrak, erromatar idazle, historialari eta naturalista ezagunak, K.o. 70. urtean aipatu zuen nola egungo Frantziako hegoaldeko hondartzetan gizakiek izurdeei dei egiten zieten barbarinen arrantzan laguntzeko, nola «izurdeek ur sakonetara

Mozambikeko Yao herriko ezti-biltzaileekin eta «indicator» familiako txori ezti-gidariekin egindako ikerketa batek, fantasia purua, maitagarrien ipuinen eta mitoen kontua zela uste zenari ebidentzia zientifikoa eman dio. Libre bizi diren animalia basak eta gizakiak elkarrekin komunikatzen dira, mintzaira kode propioen bidez.



Erlauntzak topatzera abiatu baino lehen, txorrotxio ozen eta marmar labur batekin erakartzen dituzte txori ezti-gidariak Yao herriko ezti-biltzaileek. Behean, biltzailea txoriak bilatu dion erlauntzeko ezti suaz eta aizkoraz biltzen. Claire SPOTTISWOODE / GAUR8

bueltatzea eragozten diete aztoratutako barbarinei, eta hondartza ondoko sakonera gutxiko uretara bideratzen dituzte, jendeak arrantzatu ahal izateko». Gero, esker oneko keinu gisa, arrantzaren parte bat izurdeekin partekatzen zuten.

Madagaskarreko kanalaren aurrean hedatzen da Mozambike. Bada, Afrikako hegoaldeko herrialdeko Mbamba herrixkan bizi den Yao komunitatearen eta txori basen, zehazki ezti-gidari handien (*indicator indicator*), arteko harreman mutualista liluragarria da. Izan ere, jada ez da mito hutsa, errealitatean halakorik existitzen ote zen gutxik uste zuten arren, ezti-gidariak eta Yao komunitateko kideek elkarkidetza zinez oparoa finkatu dutela dokumentatu berri da.

TXORROTXIO OZEN, MARMAR LABUR

Ezti-gidariak ondo ezagutzen ditut bertako erleak, badaki non diren erlauntzak, baina ezin da bertara iritsi, ez dago horretarako prestatuta. Izan ere, erleak arriskutsuak dira zapatila batean ere sartzen ez diren txori txikiontzat: potentzialki hilgarriak izan daitezke. Hortaz, lankidea behar dute txoriek. Dokumentatuta dago aurretik azkonar ezti-jaleekin ere aritzen direla elkarlanean. Kasu honetan, baina, Yao herriko kideekin egiten dute. Yaotarrek ez dute erlauntzak hartzeko arazorik, baina ezin dituzte topatu, usteldutako enbor erorien barruan, eskuraezinak diren zokoetan gordeta izaten direlako. Txori ezti-gidariekin, berriz, ez dute surik (keak erleen alarma feromonak oztopatzen ditu, erasorako ezgaituz eta ezti biltzeko lan baldintza hobek sortuz), ezta aizkorarik ere. Horrenbestez, bien artean, bien onurarako ekipo bakar bat osatzen dute txoriek eta gizakiek, elkar lagunduz.

Prozesua, gutxi gorabehera, honakoa da: yaotar ezti-biltzaileek txorrotxio ozen eta marmar labur batez deitzen dituzte txoriak, ikerlariek “brrr-hmm” bezala transkribatu duten dei espezial batekin. Eta ezti-gidariak zalaparta betean erantzuten dute, kantu berezi batez yao-

tarren arreta bereganatuz. Behin espezien arteko lantalde komuna eratuta, erlauntzetaraino eramaten dituzte gizakiak txoriek. Hala, yaotarrek ezta bildu eta etxoletara eramaten dute jateko, edo saltzeko, eta ezti-gidarientzako uzten dute –batzuetan erreberentzia eginez– argizaria. Izan ere, jaki gustukoa dute oso argizaria txoriok.

Spottiswoodek Mbamban egin zuen ikerketak ondorio liluragarriak utzi ditu. Yaotarrek ezti-gidaria deitu eta txoriak azaltzen direnean, kasuen %75ean topatzen dute erlauntzaren bat; ez hori bakarrik, txoriak “brrr-hmm” deiaren bidez konbokatuz gero, erlauntzak topatzeko aukerak hiru aldiz handitzen dira.

Ikerketak bazterrak aztoratu ditu ebidentzia zientifikoa eman diolako ustez mitoa zenari, hots, gizakien eta animalia basatien arteko komunikazioari, “mintzaira kode” propio baten existentziari. Hori baieztatu eta kuantifikatu egin da orain. Portzierto, yaotarrentzat zeharo nabaria zen aurretik ere, belaunaldiz belaunaldi, ehunka mila urtez, ia milioi urte pasatik jakin baitute; sua menderatzen aurrenekoz ikasi zuen gure arbaso *Homo erectus* mitikora irits daiteke soka. Arraroa bai, baina zinez ederra da ordutik gaur egunera biziraun duen mintzoa.

MISTERIO ASKOREN JAGOLE

Ezti-gidaria izeneko txoriek (handia eta txikia, bi espezie ezberdin baitaude) aipamen berezia merezi dute zinez. Benetan dira bitxiak. Liluragarria da gizakiarekiko duten portaera, bai, baina beste misterio eder askoak ere gordetzen dituzte ezti-gidariak.

Indicator familiako txoriok argizari jaleak dira. Dieta kurioso horren lehen aipamena Joao Dos Santos misiolari portugaldarrak egin zuen, 1569. urtean. Mozambiken zuen misioko elizara aldareko kandeletako argizaria jatera sartzen omen ziren. Ornodun animalia batek argizaria jaten zuela jakitea benetako aurkikuntza izan zen.

Oraindik ere misterio hau ez da erabat argitu. Ez dute diges-



Ikerketak ebidentzia zientifikoa eman dio ustez mitoa zenari: gizakien eta animalia basatien artean badago komunikazio kode bat, «mintzaira» propio arraro eta zinez eder bat

Ezti-gidariak jokabide parasitarioa du. Txitak beste txori batzuen habiatan jaiotzen dira eta sortze beretik dira zitalak: «anaia-arreba» dituzten txitak mokoarekin hiltzen dituzte

Ezti-gidari handiak («indicator indicator»), tamainan txikia eta kantuan arrunta, jokabide parasitarioa du. Kukuaren antzera jotzen du, are beldurgarriago, krudelago. Txitak, bere kakodun moko puskarekin, ostalariaren habiako «anaia-arrebak» jo eta bertan hiltzen ditu. Egiazko sarraskia izan ohi da. Beheko argazkian, erlatxori txitak nola hiltzen dituen ikusi besterik ez dago.

Claire SPOTTISWOODE / GAUR8



tio-hodiaren egitura espezializaturik, ezta hipertrofiatutako listu-gurunik ere. Hortaz, bi aukera egon daitezke: edo bakterioek egiten dute digestio hori edo berezko entzima egokiak dituzte lipido horiek hidrolizatze-ko. Bitxikeria fisiologiko honek, moldapen dietetiko berezi honek, oraindik ere zientzilarien arreta erakartzen du.

Bestalde, ezti-gidariaren izate parasitarioa, kukuaren antzera-ko bizkarroi jokamoldea ere azpimarratu beharrekoa da. Alegia, gurasoek beste espezieetako txorien habiatan jartzen dituzte arrautzak eta ez dute beren txitekin inolako harremanik. Habieta txori ostalariak uzten dituzte euren txiten zaintzaile. Errealitate horrek, ezinbestean, galdera sorta dakar altzoan: ezti-gidariak ezin badute yaotarren “brrr-hmm” deiaren zentzua gurasoengatik ikasi, nola demontre ikasten dute? Sortze bereko jakintza dute, euren izatean zizelkatua? Beste txorien-gandik ikasten dute? Esperientzia propioagatik? Ala denen konbinazio baten ondorioz?

KUKUAREN ANTZERA, BIZKARROI

Galderon erantzun biribil eta zientifikorik ez dago. Susmo eta hipotesi artean mugituko gara, hari batzuk eskainiz eta hortik tiraka. Edonola ere, ezti-gidariaren bizkarroi izatearen, jokabide parasitarioaren inguruko zertzelada gutxi batzuk ematea merezi du.

Munduan diren txorien artean, ez da seguru aski besteen habiatan arrautzak jartzen dituztenen artean ezti-gidaria baino txori azkarrago eta krudelagorik



egongo. Deabrutxo zital honek, hegazti oportunistak honek, beste hegaztien habiatan uzten dituzte arrautzak. Ez du batere denborarik eta energiarik galtzen txitak zaintzen eta elikatzen. Bere bizi-estrategia beste txoriei ziria sartzen oinarritzen du ezti-gidariak. Agian horregatik dute hain erreputazio txarra: adopziozko “anaia-arreben” hiltzaile gupidagabea da.

“Gai direnak biziko dira” bizi-legearen bertsiorik ankerrena ordezkatzeko du ezti-gidariak. Baina, ia 100 hegazti espezie parasitario daudelako kontsideratuz, estrategiak ongi funtzionatzeko duela esan daiteke, bai. “Aprobe-txategi” honek bere ostalariak engainatzeko hiru urratseko bidea du. Hiruretan, parasitosa ostalaria engainatzen saiatzen da, eta, urrats bakoitzean, ostalaria bere defentsak hobetzen saiatzen da.

Lehenik, habia “inbaditzen” du ezti-gidariak. Gero, arrautza “disimulatu” edo “mozorrotu” egiten du, sarritan ostalariaren arrautzak dituen kolore eta tamainak imitatuz. Ezti-gidariak txitaldi motzagoa duenez, inbasoreek ostalariak baino lehenago apurtzen dute oskola. Eta hortik, azkenik, “anaia-arrebak” hiltzea dator. Bai, esan liteke: hegazti parasitarioen txitak, sortze beretik dira zital hutsak,

ohiko sarraskigileak ostalarien habietan.

Aipatu bezala, orain arte libre bizi diren txori basen eta pertsonen arteko horrelako harremanak fantasia huts zirela uste zen, maitagarrien ipuinen eta mitoen kontu. Ahozko transmisioaren kontakizun. Manufakturatutako azukreak naturan bildutako ezti oinarritzko elikagai gisa ordezkatu duen heinean, hilda zegoen, existitzen ez zen portaera bat zela uste zen.

ESPERIMENTU HARRIGARRIA

Spottiswoodek gidatutako esperimentu aleatorio eta kontrolatuek, baina, ondasun natural itzel baten gordeleku den Niassa natura-erreserbako ezti-biltzaileentzat erabat ezaguna zen praktika baieztatu eta kuantifikatu dute. Esperimentuok erakusten dutenaren arabera, yao-

Hipotesi zientifikokoaren arabera, ezti-gidariak eman zuen lehen urratsa Yao herriko kideekin harremanetan jartzeko. Ezti-jaleak diren tximino handiak edo azkonarra hautatzeko aukera zuen ezti-gidariak, baina aipatu animalioek ez dute sua menderatzen eta ez dira enborren zokoetatik erlauntzak ateratzen eraginkorrak. Horregatik hasi zuen gizakiekin «elkarriketa» ezti-jaleak. Gizakiek, gainera, ez lukete txoriak deitzeko arrazoirik izango ezti-jaleek beraiei emateko informazio preziazurik ez balute.

Claire SPOTTISWOODE / GAUR8

Tanzanian ezti-gidariak txistu melodiatsu baten bitartez deitzen dituztela dokumentatuta dago. Beraz, egokitzapen genetikorik ba ote? Ez, inondik inora ere ez dago horrelakorik

Yao herriko kideen eta txorien arteko mintzaira magikoa, ehunka mila urte atzera irits daiteke, sua menderatzen aurrenekoz ikasi zuen gure arbaso «Homo erectus» mitikora

tarrek ezti-gidaria “errekrutatzeko” duten aldien %75ean erlauntza topatzen dute. Honakoa ere esperimentatu zuten: ea ezti-gidariak “brrr-hmm” deiari soilik erantzuten ote zion edo berdina egingo ote zuen bestelako estimulu batzuekin.

Yao herriko ezti-biltzaileekin egindako 72 saioetan, hamabost minutuz zabaldu zituzten aurrez grabatutako soinuak bozgorailu baten laguntzarekin (gizakien soinuak –Yao hizkuntzan “ezti” eta “ezti-gidari” hitzak zein ezti-biltzaileen izen propioak–, animalien soinuak –bertako basauso espezie batena–, eta “brrr-hmm” deia). Bildutako datuen azterketa estatistikoa eginez, emaitzak harrigarriak izan ziren: “brrr-hmm” dei espezifikoarekin hirukoiztu egiten zen ezti-gidarien etorrera, eta, beraz, erlauntzak topatzeko aukera. Are, beste soinu horiekin txoriek interesa galdu eta ezti-biltzaileei segitzeari uzten diotela ere ikusi da.

Eta txoriok dei tradizionala errazago entzungo balute? Ikerlariak hori frogatzeko bozgorailuen bolumena igo egin zuten eta ondorioa argia izan zen: bolumenaren igoerak ez du ondoriorik erlauntzetaraino gidatua izateko aukeran.

Bada beste kontu bat ere: txoriek yaotarren deia guraso biologikoengatik ikasterik ez badu-

te, “brrr-hmm” dei horren eza-gupena berezkoa da? Tanzanian deia txistu melodiatsu baten bitartez egiten dutela dokumentatuta dagoenez, adaptazio genetikoko ezberdin bat ote da?

PORTAERA IKASIA IZATEA, HIPOTESI

Ez, ez dago ezberdina den egitura genetikorik. Hortaz, deiaren eza-gupena ikasia izan behar da, seguru aski inguru berean diharduten beste ezti-gidari helduengandik. Horrek zera esan nahi edo iradokitzen du: beste txoriak ikusi, eta, batez ere, haien portaerak duen saria frogatuta, imitatu egiten dituzte.

Eta portaera ikasia bada, noiz hasi zen martxan sistema hau? Txoriok argizaria bere kabuz lortzerik ez dutenez, seguruenik, gizakiak nola lortzen zuen ikusten hasiko ziren. Hau da, ezti-a bildu ostean uzten zituzten “hondakinak” jaten. Hipotesiaren haritik tiraka, txoriok ezti-biltzaileei jarraika hasiko ziren, eta, are, baita ezti-biltzaileak baino lehenago erlauntzetara joaten ere. Txorien portaera horretaz baliatu zitezkeen yaotarrak (agian *Homo erectus*ak ere?), eta, ondorioz, horrela hasiko ziren ezti-gidariak taldeki de gisa hartzen.

Gizakiak beti imitatu ditu bere harrapakinen soinuak, ziria sartuz. Portaera horren adibide

ez da, baina, “brrr-hmm” deia, ez baita imitazio bat. Yaotarrek belaunaldiz belaunaldi ikasi duten komunikazio kodea da.

Azpimarratzekoa da, halaber, nola Niassa erreserbatik mila kilometrorra bizi den Tanzaniako Hadza herriak helburu berdinerako erabat ezberdina den soinua erabiltzen duen, hain zuzen, melodiatsua den txistu bat. Horrek zera iradokitzen du: soinuok hautazkoak direla, gure arbasoen hizkuntzen lehen hitzak, beraz, puntu batean edo bestean ezberdinak. Eta hari beretik tiraka, ezta biltzeko ezinbestekoa den sua menderatzen aurrena izan zen *Homo erectus*-aren erreferentzia ageri da hipotesi zientifiko gisa.

Yaotarren eta ezti-gidarien arteko harremanean, zeinek hartu zuen aurrea? Eboluzioaren historian, zeinek hasi zuen elkarriketa? Spottiswooden iritziz, ezti-gidariak izan ziren aurrea hartu zutenak. Argizari jatunak diren txoriok hauta zitzaketen ezti-jale amorratuak diren tximino handiak edo azkonarrak. Espezieok, baina, ez dute sua menderatzen eta enborren zokondoetan diren erlauntzetara iristen ez dira hain eraginko-

rrak. Gainera, gizakiak txoriekin komunikatzeak ez luke zentzurik lehenago txoriak gizakiekin komunikatu ez balira. Alegia, gizakiek ez lukete txoriak deitze-ko arrazoirik izango txoriek gizakiei emateko informazio preziaturik ez balute.

ALIANZA ZORAGARRIA

Istoria hau guztia egiazko harreman mutualista da. Libre bizi diren txorien eta gizakien arteko aliantza zoragarria. Batek daki noiztik datorren harremanal “Gida gaitzazue, mesedez!” gisa itzul daitekeen “brrr-hmm” dei batekin hasten den kooperazio milenarista. Ezti-gidariak ulertu eta erantzuten duten deia izanik, Spottiswoodek berak aitortzen duen legez, mintzaira liluragarri honen jatorriaz asko dago ikertzeko oraindik.

Jada dakiguna, baina, zinez ederra da. Marabilla bat dira uzten dizkigun irakaspenak: “brrr-hmm” deitu ezti-gidariari eta lautik hirutan erakutsiko dizu non den erlauntza.

Bai, ezti-gidariak parasito gisa jokatzeko du beste txorien habiekin: erlauntzak topatzeko txorion berezko senarekin berdin egiten dute yaotarrek? Ez, inon-

Harreman mutualista erabat librea da Yao herriko kideen eta ezti-gidarien artekoa, berdinetik berdinerak gauzatzen dena. Yaotarrek ez dituzte ezti-gidariak behartu edo etxekotzen, ez dituzte ehizatzen gero nola jokatu irakasteko.
Claire SPOTTISWOODE / GAUR8

«Gida gaitzazue, mesedez!» gisa itzul daitekeen «brrr-hmm» dei batekin hasten den kooperazio milenarista (ko)eboluzio naturalaren bidez garatutako benetako marabilla da


Txitak direnean sarraskigile zitalak dira ezti-gidariak, baina, gero, yaotarrekiko lagunkoiak dira oso, behar direnean deitu eta ia beti aurkeztan diren benetako lagun horietakoak

dik inora. Harreman librea da, berdinetik berdinerak; yaotarrek ez dituzte ezti-gidariak behartzen edo etxekotzen, ez dituzte ehizatzen gero nola jokatu irakasteko. (Ko)eboluzio naturalaren bidez garatutako harremana da. Baita ahozko komunikazioa ere. Espezie ezberdinen artekoa. Ez naiz aditua eta ez dakit, teknikoki hitz eginez, hala kontsidera daitekeen, baina, protohizkuntza bat dela esan daiteke. Ahozko seinale zehatzak esanahi zehatz batzuekin identifikatzen dituen.

Zinez hunkigarria da benetan. Txitak direnean sarraskigile zitalak dira txoriok, baina, gero, yaotarrekiko lagunkoiak dira oso, behar dituzunean deitu eta

ia beti aurkeztan diren benetako lagun horietakoak. Argizaria hidrolizatze-ko metabolismoa duten eta kaloria ihaurri bilakatze-ko gai diren txoriok ez dira tamainaz handiak. Ez dute lumaje distiratsurik. Ez dute kantu liluragarrik. Baina, misterio handiak gordetzen dituzte. Agian horregatik bereganatzen dute munduko zientzialari komunitatearen arreta.

Ez da gutxiagorako. Naturan libre eta basa bizi diren leinuekin duten harremana zoragarria da. Pena da bizi eta elikatze moduak apurka-apurka galtzen joatea. Horiek galduz gero, denok galduko genukeelako, den-dena galtzeko, ezerezean urtzeko, arriskuan izango ginatekeelako.





Saioa Aginako
Psikoterapeuta

Ahoa, hitz egiteko

Oporraldiak bakarrik, lagunekin edo familiarekin antolatzen ditugu. Oporrez espero duguna gure ohikeriara indarberrituta bueltatzea da, hondartzako «txiringitoan» eguzki azpian kiskali, mendietako aire garbia arnastu edota hiri urrunen bat goitik behera ezagutu eta gero. Aldea dago bidaia bakarrik edo beste norbaitekin egitearen artean. Alde batetik, bakarrik bidaiatzeak erabakiak hartzeko erraztasuna eskaintzen du, planak ez dira beste inorekin adostu behar-eta. Beste alde batetik, ordea, bidaia batean gozatzen ditugun momentuak ezingo ditugu elkarbanatu. Beste norbaitekin bidaiatzeak bizitako momentuak partekatzeko aukera ematen du, eta, horrez gain, konpainia izatea lagungarria izan daiteke suerta daitezkeen arazoei konponbidea bilatzeko, euskarri bat baita norbait ondoan izatea.

Lagun batekin bidaiatzeak bestea bere osotasunean ezagutzeko parada ere ematen du. Aurkikuntza berriak batzuetan opari izaten diren bezala, desengainu ere izaten dira beste batzuetan. Zenbaitetan, tamalez, Pandora kutxa irekitzea ekartzen du, hau da, isilpean ziren gatazkak azalera ateratzen dira, eta, momentu horretatik aurrera, guztiz ezinezkoa izaten da berriz ere lurperatzen saiatzea. Zer egin, ordea, gatazka konpontzen saiatu arren, behin eta berriro gailentzen baldin bada harremanean?

Gizakiok etengabeko eraldaketan gauden izakiak izanda, testuinguruak ere gure jokabideetan eragina dauka. Oporrak bezalako egoera batek ere gure barneak mugi ditzake, horrek harremanetan eragina izanez. Familia batek osatutako sisteman, sistema berau osatzen duten kideen arteko el-karreragina izanda, behin eta berriro errepikatzen den gatazka konpontzeko eraginkorrena sistema osoa aldatzea izango da. Kide baten aldaketarekin ez da nahiko izango, horrek gainontzeko kideen aurkakotasuna eragin dezakeelako.

Familia bakoitzean elkarri eragiteko posibilitate anitzak egon arren, denboran

zehar harreman arauak ezartzen dira. Arau horiek ordena eta koherentzia ematen diote sistemari eta familiarengan bertututa izaten dira, familiako kide bakoitzaren itxaropenak direla-eta. Sistema aldatzeko eman beharko diren pausuak ere ezberdinak izan daitezke kide bakoitzarentzat, nahiz eta guztiok gatazka berdinean nahastuta egon.

Krisi kasuotan kideen arteko komunikazioa ere oso garrantzitsua da. Besteei traba edo errespetu falta iruditzen zai-guna helaraztea, feedback egokia bermatuz. Askotan bidaltzen den feedback mota ez da eraginkorra izaten; asmo onez egin arren, sortzen duen emaitza ez da guk espero duguna. Konponbiderako aldaketak bultzatu beharrean, egonkortasuna sustatzen dute, egoera gatazkatsua mantenduz. Feedback positibo batek aldaketa eragin beharko du; horrek sistemaren hazkuntza eragingo du eta ingurunearekiko egokiera. Krisialdiak aldakuntzak txertatzeko aukerak dira.

Paul Watzlawick Austrian jaiotako psikologoak baieztatu bezala, guztiz ezinezkoa da ez komunikatzea. Jokabide orok zerbait komunikatzen du. Isiltasunak ere zerbait komunikatzen du. Pertsona batek hitz egiten duenean bidaltzen duen mezua esaten dituen hitzak baino zabalagoa da, eta elkarrizketan dauden pertsonen arteko harremana nolakoa den definitzen du. Horregatik, mezua onartzea igorlearen eta hartzailearen arteko harremana onartzea litzake, eta horregatik, zenbaitetan, igorleak bidalitako mezua onartzeak bi pertsonen arteko gatazka suposa dezake.

Egoki komunikatzea ez da batere erraza: lan pertsonala suposatzen du eta, batez ere, besteari entzutea, hori baita komunikatzeko ekintzaren oinarrietako bat. Egunero egiten dugun ekintza izan arren, hobetzeko errepikapen hutsa ez da nahikoa. Komunikatzen garen moduari buruz hausnartu beharko dugu, finkatu beharreko pieza topatu arte. Eta gogoratu: isilik geratzea ere komunikatzea da. •



Isilik geratzea ere komunikatzea da.

Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

{ datorrena } **Pello Otxandiano**

Irri eta herri

Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskundeen prestaketa lanek animatu dute aurtengo udara. Azken hilabeteotako zita elektoralen kate amaigabearen katebegi bat gehiago askorentzat, nekea eta asperdura sortzen duen dinamika elektorala. Espainian gertatzen denaren zain, 2016ak hauteskunde ziklo bat itxi eta hauteskunde-rik gabeko denbora tarte bat irekiko du.

Ikasturte amaierak zapore garratza utzi zuen. EH Bilduk ez zuen lortu beheranzko joera apurtzea, nahiz, asko errepikatu denez, beste giro bat sumatzen hasia zen. Aldaketak eta egokitzapenak behar besteko sakontasunez egiteko denbora falta izango zen faktoreetako bat. EAEko hauteskundeen aurrerapena ezagutu genuen gero, mesederik ez ezkerreko independentismoarentzat azken kolpetik behar bezala errekuiperatu eta erronka berriari taxuz erantzuteko.

Uda sasoiak harrapatu gintuen segidan, eta esango nuke datorkigun udazken trumoi-tsua gaineko kezka nabarmentzen dela askoren buruetan opor egunotan. Alta, haize ufada freskoak iritsi dira uda beteko beroan, ilusio eta autokonfiantza printza batzuk nekea eta asperdura gainetik astintzeko. Pertsona desberdinek EH Bilduren hautagaitza osatzeko eman duten pausuak asko poztu nau ni bederen. Konpromiso politikoa merke kotizatzen den garaiotan motxila pisutsua bizkargaineratzeko herrikide fin ausartak ditugula adierazten duelako batetik. Prozesuak, etorkizun hurbilean, lider kualifikatu berriak irabazi dituelako bestetik. Pertsona anitzen inkorporazioak EH Bilduk behar-beharrezkoa duen eraldaketa azkartuko duela koan nago gainera. Eta noski, hauteskundeei aurre egiteko hautagaitza sendoa osatu dela ere uste dut.

«Hauteskunde batzuk baino ez dira, lau urtean behin errepikatzen direnak», pentsa liteke nekea eta asperdura gailentzen direlarik. Bai, baina ez. Askok baitago jokoan. Ondo bidean prozesuaren katalizatzaile izan daitezkeelako, Euskal Herriaren zati honetan prozesu subiranistari forma eta abiada emateko ateak ireki ditzaketelako. Uste dut, orain 40 urte bezala, ezkerreko independentismoa diagnosian zorrotz asmatzen ari dela, eta azken hilabeteetako gertakariak bere posizio politikoa indartzen dutela, arerioen ahultzen dituzten neurri berean. Egia da horrek ez duela zertan hauteskundeetako emaitzetan ko-

rrelazio zuzena izan, aldagai asko sartzen baitira jokoan eta hauteskunde makineria ondo engrasatu batek hutsune politiko funtsezkoak disimula ditzakeelako.

EAJk berriki iragarri duen estatus politikoa hurrengo legegintzaldian berrikusteko nahiak sinesgarritasun gutxi du azken lau urteotako paralisi intentzionatua ezagutu ondoren. Proposamen berritzailea omen dakar EAJk datorren legegintzaldirako. Ongi etorria izango da. Besteak beste agortu delako anbiguotasunerako tarte. Baldin eta herri honen etorkizunaz kezkatuta ez bageunde, Urkullu eta bere ideario alaia -XXI. mendeko independentismoaz esan berri duenaz ari naiz- sare sozialetan umorea eta sorkuntza sustatzeko artefaktu bikainak lirake. Baina ez, ez du grazia, herri honen pulstua geroz eta apalagoa baita hainbat aspektutan eta autogobernuaren erasana etengabea izan baita azken lau urteotan.

Espainia alda daitekeen esperantza puztu eta ondo saltzen jakin dutenak errealtatearen zama nozitzen ha-

Beste hauteskunde batzuk, bai. Eta herri burujabetza eta erabakitze eskubidea eztabaida politikoaren erdigunera ekartzeko zein herri prozesu subiranista baten zimenduak jartzen hasteko aukera ere bai

siak dira. Espainia ez da demokratizatuko. Aitzitik, gehiago desdemokratizatuko da datozen urteetan, eta sistema politiko bipartidistak sendotasun nahikoa erakutsi du enbata berriei eusteko. Eta azkenik, nazionalismo espainiar ez-demokratikoak lehengo lepotik burua. Arnaldo Otegiaren inhabilitazioa nork lehenago eskatuko, horixe herri honentzat duten eskaintza politiko bakarra.

Beste hauteskunde batzuk, bai. Eta herri burujabetza eta erabakitze eskubidea eztabaida politikoaren erdigunera ekartzeko aukera ere bai. Eta herri prozesu subiranista baten zimenduak jartzen hasteko, eta kanpaina herritar indartsu, koloretsu eta alaia egiteko; eta inhabilitazio saiakeren aurrean herri erantzun tinkoa antolatzeke, eta herritarrei gure proiektuaren bertuteak azaltzeko, eta lidertza berriak martxan jartzeko... eta irri egin eta herri izateko aukera, ere bai! •

PADURA BARATZA

Familiei bideratutako ortu ekologikoa Gorbeiaren hegalean

 **GIZARTEA** / Ion Salgado

Padura Baratza Zigoitian dagoen ortu ekologikoa da. 40 familia inguruk astero erosten dituzte bertan ekoizten diren barazki eta fruituak, eta beste askok parte hartzen dute urtean zehar antolatzen dituzten tailerretan. Etorkizunari begira bi erronka nagusi dituzte: eguzki energiako plakak instalatzea eta euri urak jasotzeko sistema bat sortzea.

Landa lehorren artean ikusten den irla natural bat dago Zigoitian, kolore bi-ziak osatzen duten oasia. Akosta eta Eribe kontzejuen artean, Gasteiztik hurbil, aurki dezakegu Padura Baratza, duela sei urte sortutako proiektu ekologikoa. Hauxe ez da nekazaritza-ustiategi arrunta, hemen ez dituzte produktu kimikoak erabiltzen ahalik eta etekin ekonomiko handiena lortzeko. Eta ez dituzte baliabideak zarrasteldu. Hemen lurrak eta gizakiak elkarrekin lan egiten dute barazkiak eta fruituak ekoizteko.

Hala azaltzen du Ander Arrietak, Padura Baratzak dituen hiru hanketako batek. Anderren ustez, lantzen dituzten hiru hektareak bereziak dira. Ereku txiki horretan natura eta ingurumena dira protagonistak. «Ez da bakarrik baratz bat, ekoizpen lokalean eta salmenta zuzenean oinarritutako egitasmoa da. Herrikoiek diren ohiturak eta lanak berreskuratu ahal diren toki polita», nabarmentzen du gazteak, baratzaren erdi-erdian dagoen eraikineko portxeko itzalean atsedena hartzen duenak.

Bezeroenganako hurbiltasuna da Padura Baratza bereizten duen ezaugarrietako bat. Miguel Garcia de Cortazar, Peggi Jonas eta Arrietak berak –proiektuaren zutabe nagusiak– bezeroe-

kin harreman estua dute. Astero 40 familia inguruk bost kilo barazkiz betetako otar bat jasotzen dute hamabost euroren truke. Baita konpromiso txiki baten truke ere: «Urtebetez otarra erosteko konpromisoa eskatzen diegu familiei».

Aurten eskaintza handitzea erabaki dute Padura Baratzeko nekazariak, izan ere, azken urteetan itxaron zerrenda izan dute.

Animaliek, gizakiak eta lurrak elkarrekin lan egiten dute barazki ekologikoak ekoizteko.
Jaizki FONTANEDA | ARGAZKI PRESS





«Ahoz aho zabaldu da gure egitasmoaren berri eta gero eta jende gehiago etortzen da guregana. Bionekazaritza elkarteari esker ezagutu gaituzte askok, edota beste ekoizle elkarte batzuen bidez», azaldu du Arrietak euren merkaturia Gasteiz eta Zigoitia osatzen duten kontzejuetara mugatzen dela argituz.

Dena den, edonork erosi ahal ditu Padura Baratzean landutako produktuak, ekoizten dituzten baratzen zati bat gordezten baitute baratza bisitatzen duten pertsonen produktuak eskaintzeko, «inolako konpromisorik gabe». Halaber, nahi dutenek erosi ahal dituzte Padura Baratzeako produktuak Gopegiko azokan edota Santiago Egunean Gasteizen antolatzen den nekazaritza azokan. Bertan topatuko dituzte Arabako babarrunak, lekak, patatak, piperrak, porruak, azenarioak, kalabazinak eta zerbak, beste barazki batzuen arte-

an. Sagarrak, intxaurrak, magurdiak, masustak... ere ekoizten dituzte. Guztiak dira ekologikoak, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak (ENEEK) ziurtatzen duen bezala. Baina Padura Baratzean lan egiten dutenek beste urrats bat ere eman nahi izan dute, «ekologia herrikoia» sortzeko. «Txinatik ekarritako tomatea ekologikoa izan daiteke, teknika ekologikoekin egina, baina ekologiaren zentzua galtzen du hainbeste kilometro egiten duenean», azaldu du, hurbiltasunaren garrantzia nabarmenduz.

Arrietaren ustez, Padura Baratzaren bezalako proiektuak beharrezkoak dira elikadura burujabetza lortzeko, edo, hobe esanda, lortu ahal izateko. «Subiranotasunaren bidean ekoizle txikiak beharrezkoak dira. Industrialak ez diren ekoizleak, sostengarriak diren ekoizleak, langileekiko eta natuarekiko ja-

rrera onak dituztenak behar ditugu elikadura burujabetza lortzeko», gaineratu du.

Aipatutako printzipioak betetzen dituzte Padura Baratzaren egitasmoan, eta egiten duten lana erakusten diete Zigoitira hurbiltzen diren guztiei. «Gure pedagogia erakusten diegu, eta guk ere ikasten dugu, beti baitago zeozer ikasteko», dio Arrietak. Urtean zehar hainbat tailer egiten dituzte, eta Gasteizko ikasle-

Aurten lau pertsona aritu dira Padura Baratzean lanean janariaren eta lo egiteko toki baten truke. Bi neska AEBetatik etorri dira, mutil bat Australiatik eta beste bat Alemaniatik

Ander Arrietak hurbiltasunaren garrantzia azpimarratzen du. Izan ere, bere ustez ez dauka inolako zentzurik Euskal Herrian ekoiztutako barazki ekologikoak Alemaniara esportatzeak

ek ere bisitatzen dute baratza. «Kurtsoan zehar lotzen ditugu bisitak, eta antzerki bat prestatzen ari gara eredu konbentzional eta ekologikoaren arteko ezberdintasunak irudikatzeko», gaineratu du. Baratzean antolatzen dituzten tailerrei dagokionez, azken hilabeteetan gazta eta ogia nola egiten diren irakatsi diete bisitariei Arrietak azaldu duenez. Halaber, *clown* ikaslaroak ere egin dituzte.

Tailerrak eta salmentak dira Padura Baratzaren finantziario iturriak, baina oraingoz ez dira aski. «Diru askorik ez dugu, baina gure mundu txiki honetan pozik bizi gara. Arazoa, adibidez, autoa izorratzen zaigunean sortzen da, orduan nabaritzen baitugu munduak beste abiadura bat duela!», azpimarratu du nekazari gazteak, baratzean lan egiten ez duenean teiltatuak egiten aritzen denak. Garcia de Cortazar eta Jonasek ere badiutuzte baratzetik kanpoko lanak. Lehena aktorea da eta bigarrenak ingeles irakaslea.

BOLUNTARIOEN LAGUNTZA

Udan behintzat lan asko dute Zigoitian, agian gehiegi, izan ere, abuztuan jaso behar dira indabak eta beste barazki batzuk. Goizeko lehengo orduan hasten dira lanean, eta etxera iluntzean itzultzen dira. Dena den, Arrietak dionenez, lana ez da beti berdina, «egunero aldatzen doa, beti dago zeozer berria egiteko. Egundean batean piperrak hartzen dituzu, beste batean tomateak...». Eta sarri lankide berriak ezagutzeko aukera ere badute, atzeritik etorritako boluntarioak aritzen baitira Padura Baratzean.

«World Wide Opportunities on Organic Farms (WWOOF) nazioarteko elkarteari esker etortzen dira. Neguan eta udaberrian ez dago hainbesteko lanik, eta, hortaz, udan etortzen dira, lan gehiago dagoelako. Guk ezin dugu kanpora joan, eta eskertzekoa da kanpoko jendea hona etortzea», azaldu du Arrietak.

Boluntarioen etorrera benetako abentura da Padura Baratzaren lan egiten duten hiru lagunentzat. Izan ere, ez dakite nor datorren, nolakoa den, ezta no-

lako harremana sortuko den euren artean.

Boluntarioek egunero lau edo bost ordu egiten dituzte lan baratzean eta horren truke janaria eta lo egiteko tokia dute. «Baina bakoitzaren inplikazioa ezberdina da. Batzuek ikasi egin nahi dute, jakin nahi dute nola egiten dugun lan Padura Baratzean, eta egun osoa daude hemen lanean. Beste batzuen jarrera oso ezberdina da; hizkuntza ikasi edo bidaiatzea dute helburu, eta, hortaz, lau orduz egiten dute lan tratua betetzeko eta kito».

Aurten lau pertsona egon dira Miguel, Peggy eta Anderrekin lanean. Bi neska Ameriketako Estatu Batuetatik etorri dira, mutil bat Australiatik eta beste mutil bat Alemaniatik. «Bat gure laguna zen eta hiru hilabete egon da gurekin. Besteak bi astez egon dira lanean», azaldu du. Euren laguntza ezinbestekoa da etorkizunari begira dituzten erronkei aurre egiteko, Padura Baratzak aurrera egiteko.

ETORKIZUNEN ERROKAK

Padura Baratz egitasmoko ki-deek bi erronka nagusi dituzte. Alde batetik, dirua lortzea eguzki energiako plakak instalatzeko, eta, bestetik, euri urak jasotzeko sistema bat sortzea. Azaldu duenez, ura eskuratzeko erabiltzen duten sistema, gasolina behar duena, aldatu nahi dute. «Arazo bat dugu energia lortzeko eta sortzeko. Orain erregai fosila erabiltzen dugu eta sistema aldatu nahiko genuke putzutik ura ateratzeko. Eta neguko ura ere pilatu nahiko genuke udan erabili ahal izateko», nabarmendu du.

Era berean, etorkizunari begira ortu familiar honetan lan egiten dutenek teknika berriak ikasi nahi dituzte lurra hobeto landu eta ustiatzeko. Horretarako egun diren elkarte ezberdinetan parte hartzen duten nekazarien laguntza izango dute, baita beste pertsona batzuen laguntza ere. Azken finean, azken urteetan Araban biderkatu egin dira baratz ekologikoak. «Herri txikietan baratz gehiago ikusten dira. Hirian zailagoa da ortu bat edukitzea, baina badira baratz



Barazkiak ez ezik, sagarrak, intxaurrak, magurdiak, masustak... ere ekoizten dituzte Padura Baratzean. Jaizki FONTANEDA | ARGAZKI PRESS

BIONEKAZARITZA SUSTATZEA HELBURU

Padura Baratzak Bionekazaritza elkartearen eta EHKolektiboaren parte hartzen du. Lehena elikagaiak ekoizteko eta kontsumitzeko eredu berri baten aldeko apustua egiten duten lagunek osatzen dute. Elkarteko webgunean azaltzen den bezala, «ingurumena nahiz pertsonen osasuna arduraz kudeatuko duen eta lehentasuna nekazariei, abeltzainei eta elaboratzaileei aitortuko dien eredu» hobesten dute Bionekazaritzako kideek.

Bionekazaritza 1993. urtean sortu zen, eta produktu kimiko edo sintetikoak erabili gabe ere elikagaiak produzitzea posible dela agerian jartzea izan zen elkartea abiatzeko arrazoia, Europako beste lurraldeetan hala egiten baitzen ordurako. Elkartek hamar arrazoi ematen dizkie herritarrei elikagai ekologikoak erosteko: «zaporetsuak, osasungarriak eta elikagarriak direlako; nekazaritza ekologikoak landa-garapenean laguntzen duelako; gure paisaiaren ondarearen aberastasuna kontserbatu eta hobetzen duelako; ingurumena babesten duelako; pestizida eta ongarri kimiko gabe ekoiztu direlako; genetikoki moldaturiko

organismorik erabiltzen ez dutelako; ez dutelako baimentzen animalien hazkuntza artifizialki sustatzea; animalien ongizatea errespetatzen delako; gehigarrien erabilera oso mugatua dagoelako; eta europar arauen bitartez hertsiki erregulatuta daudelako».

Bestetik, EHKolektibo Euskal Herriko biobaserritar agroekologiko eta herritarren kolektiboa da. Muga administratiboen gainetik, zazpi herrialdeetako biolaborariak biltzen ditu eta agroekologian oinarritutako nekazaritza eredu bioekologikoa bultzatzen du. Hala, kolektiboaren helburu nagusien artean produktu bioekologikoak identifikatzeko erreminta berriak martxan jartzea dago. Halaber, lurraldeen arteko harremanak sustatu nahi dira nekazarien arteko elkartasuna bultzatzeko. EHKolektiboaren ustez, agroekologia nekazaritza eredu osotasunean ulertzen duen kontzeptu zabala da; dimentsio ekologikoa, sozioekonomikoa, soziopolitikoa eta kulturala kontuan hartzen dituena. Aipatu nekazaritza ereduak bioekologikoa izan behar du kolektiboko kideen ustez.

ekologikoak sustatu nahi dituzten proiektuak ere. Gasteizen, esaterako, Zabalortu proiektua dago», azaldu du.

Arrietak ohartarazi duenez, oso garrantzitsua da ortu ekologikoek bionekazaritzaren printzipioak mantentzea, ez bakarrik erabili beharreko teknikak errespetatzeari dagokionez, baita bezeroak baratzairen ondoan bizi diren auzokideak izan behar direla kontuan hartuz. «Zentzuz jokatu behar da. Errioxan ardo ekologikoa egiten duten ekoizleak badaude, baina gero Alemanian saltzen dute. Hori ez da gure filosofia. Askok diruagatik egiten dute ardo ekologikoa, baina guri pertsonak eta gizartea dirua baino gehiago inportatzen zaizkigu», azpimarratu du. Padura Baratz bezalako proiektuei esker, elikadura burujabetza errealitatea bilaka daiteke etorkizunean.



EXPRAI

iRRITZIA:


BIKINIA ASKATASUNA DA!

(Bestea ez bezala)

GARBIÑE!
NORA ZOAZ?

ETORRI HONA
ETA JANTZI EZAZU
BIKINIAREN
GOIKO PARTEA!

MESEDEZ, NESKA...
BA AL DAKIZU ZEINEN
XALADA ZAUDEN
HORREKIN?



EXPRAI
2016



IKUSMIRA

ZAZPI HILABETE ITXITA ETA... LEHENGORA?

Duela zazpi hilabete itxi zituen Sestaoko lantegi-ko ateak Arcelor Mittalek, altzairuaren prezioaren beherakada zela-eta. Goiko irudian, enpresa horretako langileak ageri dira, joan den otsailean, itxieraren aurka protestan, langabeziaren ezpata buru gainean zintzilik. Azkenaldion hobera egin du altzairuaren merkatuak eta, Lakuako Ekonomia Garapen eta Lehiakortasunerako sailburu Arantza Tapiak dioenez, horixe izan da ACBko zuzendaritzak lantegia berriro irekitzeko arrazoi na-



Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

gusia. Hori eta ez bere Gobernuak multinazionalari diru laguntzak eskaini izana. Altzairuaren prezioa bere onera etorri izana eta ez orain aspaldi ez dela ACBren «xantaia» zena onartu izana. Enpresak, enpresa orok, kostuak murriztu behar ditu eta ACBk murriztu ahal izango ditu. Arazoa konponduta. Hartara, ontzat jo zuen sailburuak «zorioneko bukaera», momentuz langileen erdiak kalean utzi, itzuliko direnen lan baldintzak kaskartu eta Ezkerraldeko industria-erispena azkartu duen bukaera «zoriontsua». Xabier Izaga Gonzalez



NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA

Nekazaritza ekologikoak konbentzionalaren pareko errendimenduak lor ditzake

Ez da lehenengo aldia izango atal honetan «nekazaritza ekologikoaren errendimenduekin gizateria elikatu daiteke?» galdera pausatzen duguna. Barkatuko digu irakurleak behin eta berriz lelo berdinarekin etortzea, baina kontuan har beza kontrako iritziak indar handia, zabalkunderako (kutsadura mediatikorako?) baliabide zenbatezinak, eta gizarte oso baten sinemena dauzkala alde. Zeharka izanda ere, gizakion komunitatea osatzen dugun 7.000 milioi pertsonetariko bakoitzak jakin badaki: ezarrita daukagun elikadura sistemak, gai kimikoen eta petrolioaren menpekoak, epe laburreko «etekinak» (janaria merkea eta nahi beste) baina epe luzeko arazoak (ingurumenaren behin betiko suntsipena, ur eta lurren kutsadura, gaitz kronikoak) ekarriko dizkigula. Jakin badakigu beste elikadura mota bat, naturatik gertuago dagoen planteamendu bat, askoz egokiagoa eta, ziurrenik, iraunkorra (egun daukaguna ez baita batere jasagarria) izango litzatekeela. Zoritzarrez, kontrakoa esaten duen korrontea askozaz indartsuagoa da, aurrerago aipatu arrazoiengatik.

Horregatik, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilutik, ez dugu aukerarik galduko lau haizetara esateko ekoizpen ekologikoak alternatiba eskaintzen duela, bai janari osasuntsua ekoizteko, bai mundua elikatzeke. Ez dago soberan aipatzea azken puntu hau, mundua elikatzearena, nekazaritza-negozioak bere kanpainetan argudiatzen duen arrazoietakoa bat dela pozoiak, transgenikoak eta bestelako gailu berritzaile eta garestiak defendatzeko. Bada, nekazaritza moderna ez da gai mundua elikatzeke, 800 milioi pertsona gose latza pairatzen ari baitira momentu honetan bertan. Are gehiago, NBEko Elikadura eta Nekazaritzarako Erakundeak (FAO) 2014an estimatu zuen nekazari txikiak, familia-nekazariak, direla gizakiok kontsumitzen ditugun elikagaien %80 ekoizten dituztenak. Eta baserritar

txiki hauek (pentsa dezagun Hegoalde globaleko nekazarietan) nekez eros ditzakete hazi «hobetuak» zein hauts «magikoak». Hortaz, non gelditzen da «mundua elikatzearen» argudioa? Norberak pentsa beza.

Apurka, tantaka, beste zentzu bateko ebidentziek argia ikusten dute: ekoizpen ekologikoak errendimendu onak eta ingurumenarekiko onurak dakartzala azalartzen duten lanak aurkeztzen dira, nahiz eta medioetan ez duten izaten oihartzunik. Uztailaren 30ean, egoitza nagusia Suitzan daukan Nekazaritza Ekologikoaren Ikerketarako Institutuak (FiBL alemanezko akronimoan, www.fibl.org) 2007tik Kenyan garatzen ari den proiektuaren emaitzak argitaratu zituen prentsa ohar bidez. Nekazaritza ekologikoko teknikak tropikoan daukaten jokamoldea aztertzea da helburua. Hamar denboraldiren ondoren, ikusi dute ekoizpen ekologikoak konbentzionalaren tankerako errendimenduak ematen dituela. Ez hori bakarrik: ekoizpen ekologikoko teknikak baliatzen dituzten nekazariak etekin ekonomiko handiagoak lortzen dituztela ere baieztatu dute.

EZAGUTZA ETA FORMAZIOA ZABALTZEAK, ERRONKA

Horiek horrela, ekoizpen ekologikoak konbentzionalak baino lur gehiago behar duela adierazten duen mitoa ezeztatu egiten dute Kenyako Thika eta Chukana hamar urtez eta bertoko nekazariarekin elkarlanean garatutako proiektu honen emaitzek. Eta ez hori bakarrik: tankerako ekoizpenak lortu dituzte, ekoizpen-gaie-tan (intsumoetan) gutxiago gastatuta eta merkatuan salneurri handiagoak lortuta. Hori dela eta, bosgarren urtetik aurrera ekoizleen diru-sarrerak handiagoak dira, seigarren urtean %53 handiagoak izatea lortuz.

Ikerketak azalartzen duen beste faktore garrantzitsua bat da lurraren emankortasuna hobetzen dela nekazaritza ekologikoko teknikekin. Gainera, sistema honetan gai kimiko-sintetikoaren erabilerarik egiten ez denez, inguruko ekosistemek ere onurak



Research Institute of Organic Agriculture (FiBL)

sumatzen dituzte. Baita baratzeetan dau-dan pertsonen osasunak ere. Zentzu berean Indian (kotoiaren ekoizpenarekin) eta Bolivian (kafe ekoizpenarekin) egindako ikerketek tankera berdineko emaitzak azalartatu dituzte ekoizpen ekologikoko metodoentzat.

“Ekoizpen Sistemen Alderaketa Tropikoetan” programak –SysCom– ekoizpen-sistema ekologikoen konbentzionalen aldean daukaten abantailak eta desabantailak azalartatzea du xede. Azken helburua da lurraren erabileran jarduera jasagarriak ezartzeko politikak eta estrategiak garatzea, maila lokalean zein globalean. Ikerketa honek argi eta garbi uzten du ekoizpen ekologikoko metodoak estrategia bideragarriak direla tropikoetan. Erronka nagusia da ekoizpen ekologikoaren ezagutza eta formazioa zabaltzea.

Epe luzeko ikerketa egiten jarraitzeaz gain (gutxienez 2019ra arte luzatuko dena), ikerketa parte-hartzailearen metodologiari jarraipena emango zaio, tokiko baserrietan bertan ingurumenaren ikuspegitik iraunkorrek diren teknikak frogatuz eta ezarritik. Testuinguru honetan, tokiko nekazari eta eragile interesatuekin batera, landa-entsegu ezberdinak garatzen ari dira teknika berritzaile ezberdinak frogatu eta balioztatzeke. Bill Gates eta enparauek Afrikan bultzatu nahi duten AGRA programaren aurrean (nekazaritza kimiko-intentsiboa eta transgenikoa Afrikan zabaltzeko ekimena), mota honetako lanek erakusten dute lurretik, pertsonengandik gertuago dagoen elikagaien ekoizpen-eredua esku-eskura daukagula. Herritarrak du aukera.

Haritz Mayora



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Abuztuko denborak

Denbora gara, baina egun guztiek ez dute denbora bera, ez dira denbora berekoak. 1996a zen, gorputzera itsatsita geratzen den abuztuko egun sargori bat. Afaldu berriak ginen eta aitzak telebistaren aurrera joateko esan zigun, jada koloreak nahasten hasi zitzaizkion telebista pantaila haren aurrera joateko; gorria berde ikusten zen eta berdea gorri. Eta atleta batzuk ikusi nituen oinak telebistan berde ikusten zen pista gorriko takoetan jartzen. Eta isiltasuna. Eta tiro hots bat eta atleten jauzia aurrerantz eta nola zuzentzen zituzten uzkuertutako gorputz gihartsu haiek, eta nola hartzen zuten bihurtunea eta bihurtunetik irtenda-koan nola atleta bat besteen aurretik jarri zen nabarmen eta publikoa oihuka nola hasi zen bere zapatila urreztatuen pausaje erotua bultzatu nahian, eta gu isilik egongelan; isilik ukabilak eta sabela eta birrikak urrezko zapatila haien lokarriekin lotuta bagenitu bezala, eta esatarien oihuak «Munduko errekorra!», munduko errekorra!» eta «Michael Johnson, Michael Johnson!» eta emozio nahasketa hura, barre eta negar aldi berean egin nahia, ezer ulertu ez arren ulertu nuelako une hura betiko geratuko zitzaidala barruan: munduko errekorra, pertsona bat iritsi zitekeenik ere pentsatu ezin zen lekuan ibili zen atleta hura eta, batez ere, une historiko hura, sekula errepikatuko ez zen historia zati hura bizi izanaren sentsazioa nire baitan. Bederatzi urte nituen. Abuztuko egun hartan ulertu nuen zer diren Olinpiar Jokoak.

Denbora gara. Akaso, horregatik hunkitzen gaitu norbait ordulariaren aurretik joaten ikusteak; gure gorputz eta denbora mugatuak gaintitzen dituelako. Baina denbora gara hala ere, hemen, portu ertzean ere, ez daukagu erlojuei ihes egiterik. Gaur ez dago oholtzarik kaian, ez dago barrarik, ez dago karparik, aboradte eguneko ontzi-hondakinak aspaldi desagertu ziren hemendik. Eta ez dakit zergatik gogoratu naizen 1996ko Atlantako egun harekin, azalean hain itsatsita geratu zitzaidan abuztuko sargori harekin. Agian izango da festek

ere badutelako historikotik, olinpikotik, etorri eta joan ibiltzen direlako eta guk ere badugu gorputzaren mugak hautsi nahi dituen kirolari horretatik zerbait; ahotsik eta indarrrik gabe etxeratu ezin hori, nork gehiago iraungo, nork gehiago edango, lehian beti: denborari eta gorputzari ihes egin nahi hori; erritmoak behartu nahi bat, une bakoitza historiko bizi behararen bizi beharrez uneari ihes egiteko premia bat, ia aurrean daukaguna ikustea ere eragozten diguna, sarri ahaztuta elkar ezagutuz ezagutzen dugula gure burua ere; noiz lotsatzen garen, noiz hitz egiten dugun ondokoa mututzeko beste, noiz ez garen euforia kontrolatzeko gai... Zer naizen ni ez naizenean, eta zer ez naizen ni naizenean.

Egiten duguna gara, eta egiten dugunak egiten gaitu. Umetako telebista harekin gogoratu naiz, koloreak na-

hasten zituen harekin. Guk ere bantzuetan aldatzen dugu pantaila, errutinaren koloreak atzekoz aurrera jartzen ditugu festak iristen direnean eta jakin nahiko nuke zein den benetako gure kolore gama: pelukak, betaurrekoak eta moztorroak janzten ditugun unekoa edo bestea. Jakin nahi nuke, egiten dudanak egiten banau, oholtzarik, barrarik eta karparik gabeko portu honetan, zer geratzen den ezer geratzen ez denean; abuztuko egunetan zer den azalera itsasten dena eta zer ni aldatzen nauena. Kuriosoa baita mundu berriak asmatu ondoren ordulariak eskumuturrean lotu beharra. Eta badirudi bizitza hori dela: Olinpiar Jokoetatik Olinpiar Jokoetara, festatik festara, egun historikotik egun historikora doan orduen iragatea; zer den ez dakigun arren denbora gaintituko duen horren bila ematen dugun denbora zatia. •



Jakin nahi nuke portu honetan zer geratzen den.

Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

{ koaderno } Laura Mintegi

Hegemonia ditzosozkoa

Hegemonia da norbait, zerbait, ideia bat, besteen gainetik kokatzea. Gainontzekoen gainetik jartzen da, eta gainontzekoek onartzen diote nagusitasuna. Ontzat ematen dituzte bere ikuspuntua, balioak, sinesmenak eta usteak. Usteok ez dira jartzen kolokan.

Hegemonikoa izatea pagotxa ikaragarria da. Kontrola zureganatzen duzu orrazkera desegin gabe. Ez da behar oihurik, ezta indar handirik ere (behin hegemonia lortuta): hegemonikoa zarenez, beste guztiek hartuko dute aintzat zuk diozuna. Kuadrilletan gertatzen den bezala: eguneko plana liderrak proposatzen badu, bonbon; baina kuadrillako baboak esaten badu, hor konpon. Inork ez dio jaramonik egingo.

Politikaz ari bagara, noski, gakoa da jakitea nola esku-ratzen den hegemonia. Zer egin norberaren diskurtsoa hegemonikoa izateko. Horretan zebiltzan Gramsci, Laclau, Mouffe eta enpa-rauak, eta horretan dabiltza alderdietako arduradunak hauteskunde garaian bereziki. Hegemonikoa ez baita, halabeharrez, gehiengoa duena; gutxiengoa ere hege-monikoa izan daiteke eta bere jitea ezarri, izan ere, ko-puruz handiagoak direnen gainetik.

Hegemonikoa izateko, be-raz, ez da ezinbestekoa asko edo handiak izatea. Ez da ezinbestekoa indarra edo bortxa erabiltzea. Autoritate morala aitortzen zaio hegemonia duenari eta ez da ezta-baidatzen bere ikuspuntua, onartua delako.

Pertsuasioa, xarma, sinesgarritasuna, konstantzia, na-turaltasuna, segurtasuna. Tresna eraginkorrak dira hege-monía eskuratzeko. Bentzutu baino, konbentzitu.

Kontua da nola lortzen den hori guztia populazio plu-ral, kontrajarri, muturtu eta lubakietan ibiltzen ohitua duzunean parean. Nola.

Helburua argitzea da lehena. Zein da hegemoniaren eremua, nori zuzenduko gataizkio, honezkero gure lu-bakian bidelagun izan ditugunei ala lurraldeko bizila-gun guztiei. Egiatan helburua zein da, norberaren ere-mua egonkortzea ala eremua hedatzea. Etxea egonkortzea bada, kolektibo horrentzat identifikaga-riak diren mezuak eta sinboloak erabiliko ditugu. Hel-

burua eremua handitzea baldin bada, bezero berriei zu-zendutako mezuak eta moduak garatu beharko dira. Partikularretik unibertsalera joko dugu, balio oinarri-zkoak aldarrikatuko ditugu, aldarrikapen basikoak, lelo hurbilak, mezu zuzenak eta ulergarriak, edonorengana heltzeko modukoak.

EH Bilduren azken xedea da Euskal Herri independen-tea, sozialista, euskalduna eta feminista lortzea. Herri askea eta sozialki justua. Baina abiapuntua da dagoena: euskal herri ezberdinak, anitzak eta pluralak, ideologia kontrajarri ugari biltzen dutenak. Beren burua basko-tzat jotzen dutenak, euskaradunak izanik espainol senti-tzen direnak, joera matxista duten gizon eta emakume-ak, poltsikoa bero badute edozein ideologia onartuko luketenak. Langai horrekin egin behar da lan. Hori da gaur egungo euskal herria, desiguala eta injustua. Urrun dago Euskal Herria. Pelloren egia ematen badu ere, hasi

Pelloren egia ematen badu ere, hasi beharko dugu azaltzen zergatik den hobe, hobe denontzat, Euskal Herri buruaskia eta sozialki justua. Zer dugun irabazteko, denok irabazteko

beharko dugu azaltzen zergatik den hobe, hobe denon-tzat, Euskal Herri buruaskia eta sozialki justua. Zer du-gun irabazteko, denok irabazteko, herria elebiduna bada. Zergatik komeni zaigun guztiei, guzti-guztiei, emakume-en eskubideak errespetatzea.

Azaldu, argitu, esplikatu Euskal Herri horretan denok ateratzen garela onuradun, baita independentzia nahi ez dutenek ere, baita sozialista sentitzen ez direnak ere, bai-ta joera matxista dutenek ere. Egun partikularra dena unibertsala bihurtu behar dugu. Norbanako bakoitzaren-tzat ona dena, denontzat da ona. Eta hori ikusarazi. Peda-gogia egin.

Hau guztia ez da lortzen hilabeteen. Baina azken hel-burua ez da hauteskundeak irabaztea, argi eduki deza-gun. Azken helburua da Euskal Herri independentea, so-zialista, euskalduna eta feminista lortzea. •

«Dilma itzultzen bada, aldaketak egin beharko ditu»

Egoera politiko oso korapilatsuaren erdian egin dituzte Latinoamerikako XV. Agroekologia Jardunaldiak, Lapan (Parana, Brasil), Michel Temer Brasilgo presidentearen kontra kanpaina handia eginez, bidenabar. Via Campesinak antolatatu arren, MST Brasilgo Lurrik Gabekoen Mugimenduko militanteak bildu ditu bereziki topaketak, herrialdeko lurraren aldeko mugimendu zabaleneakoak. Antonio de Miranda (1974, Coronel Vivida, Parana) MSTko Masa Fronteko arduradun nazionalak egoera politikoaren inguruko xehetasunak eman dizkio Askapenaren eskutik Brasilen izandako euskal brigadari.

Ezagutzen ez dutenei nola azalduko zenieke zer den MST?
1984an sortu zen MST, hiru helbururekin: lurraren, nekazaritza erreformaren eta eraldaketa sozialaren alde borrokatzea. Eta sortu zenetik gaur arte 33 urte beteko ditu laster- borroka horretan segitzen du. Gaur egun, gainera, nekazaritza erreforma hori herritarra izatea ere aldarrikatzen dugu, Brasilgo biztanleria osoa kontuan hartuko duena. Via Campesinarekin batera, halaber, elikadura burujabetzaren alde ere egiten dugu borroka.

Zer arazo dago Brasilen lurra- rekin, bada?
Gure herria latifundioek menperatuta dute, guk “agronegozio” deiturikoek. Haziak ere agronegozioek kontrolatzen dituzte, eta herritarrentzako elikagaien hornitze eskasia bat dago, latifundioak esportaziorako lehengaiak ekoiztera mugatzen baitira. Guk, horregatik, nekazaritza erreforma ikuspegi askoz zabalago batetik ikusten dugu, ikuspegi herritarretik: lurraren banaketa justuaren alde egiten dugu, baina baita landa eremuaren industrializazioaren alde, eta gizarte justuago baten alde ere bai.

ANTONIO DE MIRANDA

BRASILGO LURRIK GABEKOEN MUGIMENDUKO BURUZAGIA

Dilma Rousseff bueltatzea baino, Temer gobernutik kentzea eskatzen du MST Brasilgo Lurrik Gabekoen Mugimenduak. Euren kontrako kriminalizazioa handitu egin den arren, lurren okupazioekin jarraitzen dute, herritarren aldeko nekazaritza erreforma aldarrikatuz.

Askapenako Brigada



Lurren okupazioa erabiltzen duzue borroka tresna nagusi gisa. Zergatik?

Latifundioak okupatzen ditugu, produktiboak izan ala ez, funtzio sozialik ez dutelako betetzen: ez dute elikagaiak ekoizten, esportaziorako lehengaiak baizik. Okupazioak laborantza eredu hori salatzeke tresna dira, baina baita elikagaiak produzitzeko ere. Behin lur horietan kokaguneak sortuta, gure egitekoa da bertan elikagaiak ekoiztea, natura errespetatuz. Beraz, alde batetik, zalantzan jartzen dugu lurraren egituraketa hori, eta horretarako okupazioak egiten ditugu. Gero, borroka egiten dugu lur horiek desjabetuak eta laborarien esku utziak izan daitezzen. Eta, azkenik, elikagai osasuntsuak ekoizten ditugu Brasilgo biztanleentzat.

Brasilgo Gobernuak behin baino gehiagotan agindu dizue nekazaritza erreforma egingo zuela, baita PT Langileen Alderdiak ere. Zuek zuen kabuz borrokatzen segitzea erabaki duzue, ordea. Zergatik?

Gure borroka ez da sekula egon gobernu bati lotua. 32 urte ditu mugimenduak, Brasilgo estatu guztietan gaude, eta beti izan gara autonomoak bai lurraren aldeko borrokan bai gobernatu dutenei eskubideak eskatzerakoan. Gobernu bati loturik egon izan bagina, beharbada egun ez ginateke existituko. Baina gaur egun oraindik lurrik gabeko familiak daude, nekazaritza erreformarik ez dute egin, eta jendeak borrokatzen segitzen du, modu independentean. PTren Gobernuak, hasiera batean, esan zuen nekazaritza erreforma egingo zuela, Lularen [Luis Ignacio Lula da Silva] lehen agintaldian. Baina Gobernuak ez zion aurre egin agronegozioaren ereduari: PTren Gobernuak agronegozioaren alde egin zuen, eta ez familia laborantzaren alde. Hori Lularen bi agintaldietan gertatu zen, eta Dilmarekin [Rousseff] ere bai. Azken hiru urteak lurren desjabetzarako garairik okerrenak izan dira gure herriaren historian: Fernando Color de Melo eskuindarrak kokagune gehiago

bultzatu zituen Dilmaren Gobernuak baino. Laborantzaren aldeko diskurtso landu bat eduki arren, aldi berean kokaguneak ez dute gauzatu eta familia laborantza ez dute bultzatu... Horregatik mantendu dugu beti gure autonomia. Alde batetik, PTren Gobernuak egindakoa aintzat hartzen dugu, gizartearentzat oro har aurrerapenak ekarri baititu. Baina, beste alde batetik, nekazaritza erreformaren arloan zor historiko bat utzi du landa eremuko langileokiko.

Orain Michel Temer dago gobernuan, «impeachment» prozesu polemikoaren ondorioz. Zuek estatu kolpe deitu diozue Dilma Rousseffen kargugabetzeari. Zergatik?

Brasilek 50 urte daramatza demokrazian: lehenagoko agintari guztiak izan dira jeneralak, marrexalak, erregeak... Orain, 64ko diktadura militarren ondoren, esan dezakegu 30 urte pasa ditugula demokrazian. 64koa erekin alderatuta, oraingoa kolpe ezberdina da, ez direlako indar armatuak zuzenean erabili. Zeharka egin dute, tresna legalak erabilia. Baina kolpe bat da halere, 54 milioi hauteslek erabakitakoaren kontra doalako: apenas 362 diputatuk erabaki dute herrialdea nola gobernatu. Eta kolpea da, langileen eskubide guzti-guztiak murrizten ari direlako: pentsioen erreformatik hasita, duela 40-50 urte irabazitako eskubideak murrizten ari dira, kapital finantzarioari eta enpresa handiei baliabide gehiago emateko. Bestalde, zakarretara bota dituzte Brasilgo Konstituzioaren printzipio guztiak, guk demokrazia burges deiturikoarenak: gutxiengo bategen erabakiko du gehiengo bategen beharrekia.

Ez da ustelkeria kasu batengatik bakarrik, beraz?

Kolpea eman dutenak ez daude kezkatuta kontu teknikoengatik: Ministerio Publikoak berak esan du Dilmaren kargugabetzerako erabili duten ustelkeria kasua ez dela berez krimena. Baina hori horrela izanik ere, Kongresuak eta Diputatuen Ganberak segi-

tzen dute prozesuarekin, langileen eskubideak murrizten eta aliantzak egiten esportaziorako lehengaiak saltzeko, AEBekin bereziki, soja eta arto ekoizpe-
nak azkartuz, meatze proiektuak bultzatuz... Brasilgo lurraldea babesteko zenbait neurri ere izkin egiten ari dira. Nagusiki bati: atzerriko enpresei Brasilgo lurrak –250.000 hektarea– erosteko atek ireki nahi dizkiete. Herrialdea subordinazio prozesu batean sartzen ari dira.

Temerren kontrako kanpaina handia egiten ari zarete, baina ez da ikusten Roussefen aldeko afixarik... Nahi duzue itzul-tzea? Zein baldintzatan?

Gu kolpearekin kontra gaude, ez Dilma bueltatzearen alde. Demokraziaren kontra doan prozesu baten aurka egiten ari gara kanpaina: guk eskubide demokrati-koak nahi ditugu, bozken bidez hautaturiko presidentek segi dezala agintaldiaren bukaerara arte. Noski, horrek esan nahi du Dilma itzultzea, baina, itzultzen bada, aldaketak egin beharko ditu. Lehenik, klaseen arteko alianza egiteari utzi behar dio. Eta gero, programa bat garatu beharko luke, zeinak sakonduko duen demokrazian. Esaterako, fortuneen gaineko zergak ezarri, anitz duenak gehiago ordaindu dezan. Erreforma politiko bat ere egin beharko luke, birdefinitzeko hauteskunde sistema, ustela baita: hauteskunde kanpainak egiteko beste modu bat arautu behar da. Horregatik esaten dugu presidentea itzultzea aldaketak egitearen sinonimo izan behar dela: gizarteari dei egin beharko dio eztabaida zenbait egiteko, eta saiatu politika sozialago bat egiten, langileen eskubideen alde.

Abuztuaren amaieran izango da Senatuko bigarren bozketa, eta hor erabakiko da Temerrek jarraituko duen ala Roussef itzuliko den. Zer uste duzu gertatuko dela?

Indefinizioa handia da, botere politikoan daudenak ez baitaude kezkatuta Brasilgo herritarrekin; talde jakin batzuekin konprometituta daude. Beraz, inork ez daki zer gertatuko den. Gerta daiteke



*«Latifundioak okupatzen ditugu, pro-
duktiboak izan ala
ez, funtzio sozialik
ez dutelako bete-
tzen: ez dute elika-
gairik ekoizten,
esportaziorako
lehengaiak baizik»*

*«Eskubide demokra-
tikoak nahi ditugu,
bozken bidez hauta-
turiko presidentek
segi dezala agintal-
diaren bukaerara
arte. Baina itzultzen
bada, aldaketak
egin beharko ditu»*

*«Langileen erailke-
tak areagotzen ari
dira Brasil osoan:
gehien atzean
Polizia Militarra
dago, baina baita
latifundistak ere»*



Argazkiak: ASKAPENAKO BRIGADA

Temerrek jarraitzea, izan ere, gertatutakoa kolpe bat da, parlamentari talde jakin batekin loturikoa, eskuin muturrarekin eta nazioarteko kapitalarekin loturiko parlamentari talde jakin bat. Beste alde batetik, espekulazioa ere badago: ikuspegi nazionalistagoa duten diputatu batzuek alda dezakete iritziz, baina ezer ez dago definituta. Herri presioak jarraituko du, baina oro har Brasilgo herritarrek sakrifikatuta gaude nolabait, ez baita erabaki tekniko bat izango, erabaki politiko bat baizik. Eta erabaki politiko hori jada itxita dago: oso zaila da buelta ematea.

Aipatu dituzu Temerrek harturiko neurri batzuk. Baina zehazki laborariei eta MSTri zerk eragingo dio? Kriminalizazioa handitzen ari da?

Badira neurri batzuk aurreko Gobernuak hartu arren egungoak ezarri dituenak. Horietako bat da Elkarte Kriminalen Legea, urte

hasieran abian jarritakoa. Beste lege bat terrorismoaren aurkakoa da, Olinpiar Jokoei begira eginkoa. Bigarrenak ez die eragiten mugimendu sozialei, baina lehenak bai. Eta lege hori erabilia ari dira herri mugimenduak kriminalizatzeko, eta gero eta gehiago ari dira botere judiziala erabiltzen horretarako. Laborarien aurkako neurrien artean, berriz, gehien eragiten digutenak bi dira. Batetik, Nekazaritza Garapenerako Ministerioa kendu dute, zeinak bultzatzen baitzuen familia laborantzak. Horrekin batera, PAA programa kendu dute, landa eremuko elikagaiak lortzeko programa, eta eskoletara familia laborantzako elikagaiak eramaten zituen programa bat ere bai. Bestalde, INCRA erakundea Botere Exekutiboarekin lotu dute, kokaguneak sortzeko lurrak okupatzea zailduz.

Errepresioa ere areagotu egin da, ezta?

Bai. Batetik, kriminalizazioa handitu da judizialki: krimen-tzat jotzen ari dira lur okupazioak, nahiz eta Brasilgo Konstituzioan jasota egon. Goiasen bi kide dauzkagu preso, eta beste bi Hegoaldeko Rio Granden, behin-behineko espetxeratzean. Bestalde, langileen erailketak areagotzen ari dira Brasil osoan: gehien atzean Polizia Militarra dago –Estatuarekin estuki loturiko polizia da–, baina baita latifundistak ere. Krimen ugari gertatu dira. Paranan, esaterako, lur publikoa erabiltzen zuen enpresa bat okupatu zuten lurrik gabeko langileek, Gobernuari eskatzeko lurra desjabetzea, ez baitzuen elikagairik produzitzen eta esportaziora begira ari baitzen lanean, AEBetara eta Kanadara begira. Okupazioaren ondotik kriminalizazio prozesu bat hasi zen, langileak mehatxatu zituzten... Eta, tamalez, bi langile erail zituen Polizia Militarrak, eta beste hiru zauritu. Eta, hori gutxi balitz bezala, zaurituriko langile horiek kriminalizat jo zituzten. Gaur egun preso daude oraindik, eskumuturreko elektronikoei, hiltzaileak eurak balira bezala. Horrek erakusten du justizia aparatuek ez daudela langileon zerbitzura, latifundio eta enpresa transnazional handien zerbitzura baizik. Polizia Federalak ikerketa bat egin zuen, eta harrigarriki ondorioztatu zuen lurrik gabekoek ez zutela armarik, baina poliziak «bidezko defentsan» jokatu zuela. Defentsatzat jotzen dute eraso hutsa izan zena, eta oraingo Gobernuak, gainera, babestu egiten ditu horrelako erasoak.

Horren guztiaren aurrean, zer egingo du MSTk?

Mobilizatuta gaude Brasil osoan. Hemen, Paranan, agroekologia jardunaldietan, baina beste estatu batzuetan martxak egin ez ala lurrak okupatu segitzen dugu. Guk bizi segitzen dugu borrokan, gure borroka justua delako: lurrik gabeko familiak dauden bitartean segituko dugu antolatzen eta militatzen, salaketa lanean... Borrokari esker lortuko baititugu kokaguneak eta nekazaritza erreforma.



Iñigo URIZ | ARGAZKI PRESS

IKUSMIRA

53 KONTAKIZUN IPUIN ZITAL BATEN AURREAN

Hurrenez hurren 53 silueta, Iruñeko kartzelatik Cadreitara azken bidaia egin zutenena. Fusilatuak, ezkutatuak, desagerraraziak. Irabazleen kontakizunean existitzen ez direnak, beren senideen eta herrikideen oroimenean ez bezala. 53 kontakizun izugarri, adiskidetzeari buruzko ipuina, zigorgabetasuna zuritzeko ahalegin zitala, nabarmen uzten dutenak. Iragan asteartean Nafarroako Fusilatuen Senideen Elkarteak omenaldia egin zien Iruñeko kartzela zaharraren orube-

an. Herritarrak eta instituzioen ordezkariak bertan izan ziren, desagerturik nahi zituztenekin batera, urte luzeetako mehatxuek eta beldurrak ez dituztelako ezabatu. 53 preso «askatu» berri, gezurpean fusilatuak. Haietako bat bizirik atera zen, ihes egin eta gertatutakoa kontatu zuen, baina gainerakoen heriotzen errua sentitu omen zuen, hildako bizi bihurtuta, faxisten eta haien ondorengoek aitortu ez dituzten sarraskien errua bere gain hartuta. Orain berak eta beste 52ek beren herriaren aintzatespen publikoa dute. Maitasuna beti izan dute. Xabier Izaga Gonzalez

«Burkinia»

Antton Izagirre

Udako gaia izaten ari da, komuni-kabideetan hartu duen tokia eta zenbait lurraldetako erabaki ad-ministratiboak aintzat hartuz ge-ro. Badirudi orain arte emakume musul-man batzuen udako bainujantzia izan dena modan jarri dela, eta gero eta ema-kume gehiagok hondartzetan bainurako erabiltzen duten prenda hedatzen ari dela. Eztabaida ez du eragin jantziak berak, ez eta emakume horiek gorputza estaltzen dien bainujantzia erabiltzeko hartu duten erabakiak ere, zenbait gobernu eta aginta-rik hondartza eta bainu guneeetan jantzi ho-ri erabiltzeari jarritako debekuak baizik. Arrazoi gisa aipatu izan dituzte laizis-moa, emakumeen aurka erlijioak eragiten

duen errepresioa, garbitasuna eta higie-ne... baina benetan zer dago agindu eta debeku horien guztien atzean? Zer ezkuta-tzen du «burkiniak»? Edo hobeto esanda, zer jarri du agerian eztabaida honek? Ustezko arrazoi eta argudio horien guz-tien atzean badago funtsezkoa den bat, emakume batzuek bainurako erabiltzea erabaki duten jantziak politikari, agintari eta administrariek ezarria zuten ordena zalantzan eta hankaz gora jarri duela, ga-raiko ordena eta moralaren zentsoreak di-ren horien baimenik gabe, eta hori jantzi sinple baten bidez egiteak beldurra sortu die. Gizartean musulman eta arabiar gaie-kiko dagoen sentiberatasuna, beldurra eta gorrotoa hedatzeko erabiltzea nahiago

izan dute, eta erantzunak agintekeria, ma-txismoa, arrazakeria, xenofobia itxura hartu du. Bitartean, gorputza erabat estalita zuten surflariak eta «burkiniaz» estalita duten emakumeak, normaltasun osoz, hondar-tza berean, inongo arazorik gabe, bainua hartzen ikusi ditugu. Ohiko bainujantzi eta bikinien artean kontrastea eta harridura eragin dezake burkiniak hasiera batean, baina normalta-sunez hartuz gero ez ginateke harritu be-harko, mundu globalizatu honetan, zen-bait arropa multinazionalen interes ekonomiko eta komertzialek «burkinia» modako jantzi bihurtzea Mendebaldean ere. Denbora kontua izan liteke. •

Itzalen artetik

Bi aste eskas igaro dira Gaizka So-pelana iheslari politikoa Euskal Herrira itzuli denetik 35 urte Me-xikon igaro ondoren. Ez da, ordea, zigorra bete duelako itzuli etxera, jakin badakigulako iheslariak ez dutela beraien exilioan egunik erredimitzen. Gaixotasun larri bat izaki gaitz hau sendatzeko eraba-ki du urrezko kartzela atzean uztea. Oraindik ileak puntan jartzen zaizkit iru-diak ikusten ditudanean. Ospitale kanpo-an jendearen harrera eta batez ere bere ja-rrera ikusita. Hainbeste urteren ondoren eta ukabila gora. Izugarri hunkitu nauten irudiak eta momentuak dira. Ia bost hilabete pasatu dira Angel Alda-na iheslari politikoa Venezuelan zendu zenetik. Honek ere gaixotasun larri bat

pairatu zuen eta honen ondorioz hil zen bere etxetik milaka kilometrora. Ez zuen Euskal Herria zapaltzeko aukerarik izan, soilik bere errautsak geratu dira bere jaio-terrian. Malkoak isurtzen zaizkit Ziburun egin zitzaion azken agurra oroitzen dudan ba-koitzeko. Iheslarien kolektiboan ere badira gaixo-tasun larriak dituzten kideak eta orain ai-patu ditudan bi kasuok horixe, bi besterik ez dira. Baina kolektibo honekin askotan gertatzen den moduan zailagoa da gizarte-ratzen, ikusarazten eta ondorioz hitz egi-ten. Itzal beltzak dira, aurpegirik ez dute-nak. Baina jakin badakigu siluetaren atzean pertsonak daudela, izen-abizene-kin, gaixotasunekin, eskubideekin.

Agian lerro hauek minetik idazten ditut. Agian lerro hauek idatzi bitartean ezta-rrian korapilo bat dut eta malkoak ate jo-ka, borborka atera nahian. Baina jaio nin-tzenetik dut aita erbestean eta noizbait etxean ikusiko dudan galdera, edo gaixo-tuko ote den, edo bizirik itzuliko den bel-durra handituz doa urtetik urtera. Gogorra da haientzat eta guretzat, seni-deontzat, hainbeste urteren ondoren eta egungo egoera zein den ikusita, oraindik ere itzalak izaten jarraitzea. Oraindik ere eremu eta testuinguru askotan ikusezinak izatea. Euren eskubide guztien jabe, aske eta beraien herrian ezin izatea bizi. Aita eta munduan zehar barreiatuta di-tugun euskal iheslari politiko guztiak etxean nahi eta behar ditugu. Bizirik! •

Miren Azkarate
Badiola



Rosa Arruabarrena Santos

Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlaria

Smartphoneak eta aplikazioak: iraultza edota saturazioa?

Steve Jobsek lehendabiziko iPhone terminala aurkeztu zuenetik hamar urte besterik ez dira igaro eta hala ere ukazina da smartphone edo telefono adimen-
duen ugalketa masiboa izan dela. Are gehiago, gailu digital eramangarrien artean, zalantzarik gabe, garaile absolutua smartphonea izan da. Baina, fenomeno hori lokala da ala mundu mailan gertatzen ari da? Iraultza horren inpaktua noraino iristen da?

2013an munduko populazioaren %20k smartphonea zuen eta 2017rako aurreikuspena %34koa da, hau da, 2.600 miloi erabiltzaile! Noski, kopuru zorabigarri hori ez da uniformeki banatzen ez munduan ez Europan, eta azken honetan Espainiak du lidergoa gaur egun, %87koarekin. Google Consumer Barometer erremintarekin egindako ikasketak gailuon hedapena adin tarte guztietan gertatzen dela azaltzen du: *millennials*-en artean (hots, 25 urte baino gazteagoen kategorian) hedapen maximoa baieztatzen badu ere, 2016an %98ra iritsiz, akaso deigarriena “azalekoen” kategorian (hots, 55 urtetik gorakoak) zabalkuntza %55ekoa izatea da.

Nola liteke hori? Bai jaikitzerakoan bai oheratzerakoan kontsultatzen ditugu eguraldia, bat-bateko mezularitza, sare sozialak edota azken berriak. 2014an lehenengo aldiz jendeak denbora gehiago eman zuen euren smartphonekin Interneten nabigatzen telebista aurrean baino. Sarritan ere dena fisikoen barruan beste saltokietako prezioak konparatzeko erabiltzen dugun erreminta da. Hainbesteko maiztasunez erreparatzen diogu eramangarri honi, badi-rudiela poltsikoan eramateko gailua ez dela, nahiz eta batzuek saketakoa deitu. Haatik, ziur naiz ez genukeela gailu

adimendua kontsideratuko app edo aplikazio informatikoengandik ez baltiz. Aplikazio horien eskaintza zabalean oinarritzen baita gailuaren arrakasta, horiei esker ia edozer gauza egin baitezakegu: egunean jarri, kontsultatu, konparatu, ordaindu...

2014an bi milioi app eskaini zituzten Google Play Store eta Apple Store dendeak. Iazko abuztuaren, eta aurreko bi aplikazio banatzaile erraldoien hegemonia apurtzeko asmoz, Amazon Underground sartu zen lehian.

Gaur egun, hilero 40.00 aplikazio berri merkaturatzen direla estimatzen du Diftrendia atariak. Izan ere, aplikazioak errendimendu maximoa sortzen duten kanal bihurtu dira mugikor-merkataritzan (*m-commerce* deritzona), eta ezagurri hori benetan harrigarria suerta daiteke, aplikazioen gehiengoa doakoa baita. Bitxikeria horren arrazoa “doako” banaketa horretan bi modalitate indartzen ari direla izan liteke: bata *free-premium*-a *-free+premium* konbinaziotik datorrena, hau da, instalazioa doakoa izanik funtzionalitate betegarriak ordainpekoak dira-, eta bestea, iragarki gabeko bertsioarena.

Europako aplikazio erabilienak hauek dira Diftrendia atariaren arabera: posta elektronikoa (%61,5), eguraldia (%58,5), bat-bateko mezularitza (%54,5), sare sozialak (%54), bilaketak (%50), berriak -lokalak nahiz mundu mailakoak- (%43), mapak (%42), kirol berriak (%33), argazkigintza/bideoak (%30,5) eta banketxetako kontuak (%28).

Hala ere, Espainiako erabilpena bestelakoa da: garaile nagusia bat-bateko mezularitza da -SMSak hamarretik batek erabiltzen ditu soilik-. Arlo horretan aplikazio hedatuena, noski, Whatsapp da (%85k dute instalatuta). Haatik, azken urtean kategori bereko Telegramen hedapena nabarmen hazi da bere ezaugarri bikainek hauspo emanda. Bestalde, lerroko erosketak hedatuz doazela-eta, *e-commerce* edo merkataritza elektronikoa erreferentzia diren atariak orain mugikorrerara egokitu zaizkigu, adibidez, besteak beste, Amazon, Ebay, Alibaba, Walmart eta Zalando; eta kirol materialaren salmentan, arlo espezifiko bat ipintzearen, Spartoo, Wiggle eta Sportsdirect aipa genitzake. Egia esan, aplikazioen zerrendak amaierarik ez badu ere, estatistikoki, hamar bat aplikazio edo ditugu gustuko, nahiz eta gehiago instalatuta izan. •



Mugikorrentzako aplikazioen zerrenda amaigabea bada ere, estatistikek diote hamar bat ditugula gustuko.

GAUR8

BEHATXUL[]TIK

Juantxo EGAÑA



ROBERTO ZARRABEITIA

1983KO UHOLDEEN OSTEAN, ELKARLANAREN IRUDIA

1983ko abuztuaren 26an eta 27an, Bilboko Aste Nagusia ospatzen ari zirela, ekaitz izugarriak hasi ziren Euskal Herrian zehar, tanta hotz bat zela-eta. Euskal Herriko ibai ugari gainezka egin zuten, uholdeak eta lur-jausiak eraginez. Bilbon metro koadroko 503 litro bota zituen 24 ordu eskasetan. Uholdeen ondorioz 39 herritar hil ziren Euskal Herrian, horietatik 28 Bizkaian. Galera ekonomikoak ere oso handiak izan ziren. Bermeon eta beste zenbait herritan dozenaka auto itsasoak irentsi zituen. Bilbon uholdeek Erriberako Merkatua erabat suntsitu zuten, hondakin bihurtuz, eta berdin gertatu zen txosna eta zubiekin ere, Boluetakoa kasu. Bilboko gunerik kaltetuenak Alde Zaharra eta Abusu auzoa izan ziren. Roberto Zarrabeitiak Bilbon egindako argazkian, hondakinak jasotzen eta kalea garbitzen ari diren zenbait lagun ageri dira.



GAUR8 *ireki gure leihoo*

